

## **ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEA**

**GAIA: 10/2015**

### **AKORDIOA, (...)REN ZUZENDARI (...)K (...)REN ESPARRUAN DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURETAN JARDUTEKO MODUAREN ZUZENTASUN ETIKOAREKIN LOTUTA EGINIKO KONTSULTARI BURUZ.**

1.- 2015eko abuztuaren 28an, Etika Publikorako Batzordeak (EPB) interesdunak, (...)ren zuzendariak, telematikoki igorritako idazkiaren sarrera erregistratu zuen. Horren bidez, interesdunak eskatu zuen Batzordeak esku hartzea «[...] zuzendari gisa dudan erantzukizunarekin lotutako kudeaketa behar bezala gauzatzen ari naizen berresteko edo horren gainean gomendio osagarriren bat jasotzeko».

2.- Idazkiari atxikitako dokumentazioarekin batera, interesdunak kontsultaren xedearen deskripzio zehatzagoa erantsi du. Kontsulta horretan zuzendariak galdetzen du gerta litekeen bera «sartuta dagoen prozesuek Kode Etikoari eragitea»:

3.- Erantsitako deskripzioan, kontsultaren egileak adierazten du zuzendari izendatu aurretik (...)ko gerente kargua zuela, eta, aurretiaz, (...) Fundaziokoa. Orain betetzen duen kargu publikora jotzeko, nahitaezko eszedentzia hartu zuen, baina bazkide izaten jarraitzen du, eta bertako kapitalaren portzentaje bat ere badu.

4.- Administrazio Publikoan sartu baino lehen –aipatu du interesdunak–, «bai Fundazioak bai (...)k dagoeneko urteetako ibilbidea zuten diru-laguntza horiek eskuratzeari eta (...) emateari dagokionez».

5.- Halaber –gaineratu du kontsultaren egileak– «dagokidan erantzukizun publikoa gauzatzen hasi nintzenetik, eta nire jatorria kontuan hartuta, ez dut parte hartu ezein erakunde onuraduni,–(...) erakundea barne– esleipenak egiteko onespren-batzordeetan».

6.- Kontsultaren egileak idazkian erantsitako gertaeren zerrendaren arabera, (...) bi arauri jarraikiz kudeatu da azken urteotan:

- a) (...) Administrazio Kontseiluak (...)ren esparruan onesten dituen diru-laguntzen deialdiak.
- b) (...) Dekretua, (...) hobetzeko neurriak arautzen dituena.

7.- Lehenengoei dagokienez, haiek izapidetzeko ezarritako prozedurak ([...]ren zuzendari nagusiaren Ebazpenaren 8. art.) xedatzen du diru-laguntzen eskaerak kide anitzeko organoak ebaluatuko dituela. Kide hauek egongo dira organo horietan:

- Presidentea: Arloko burua

- Kideak: Arloko arduradunak izendatzen dituen lau teknikari. Horietako bat idazkari lanetan arituko da.

Arau horretan jasotako irizpideekin bat etorritik, organoak proposamen bat egingo du, eta zuzendari nagusiari igorriko dio behin betiko ebazpena onetsi dezan.

8.- Puntu honetan, interesdunak nabarmendu du bera titular deneko organoak, (...)ren Zuzendaritzak, ez duela parte hartzen diru-laguntzen eskaerak ebaluatzeaz arduratzen den kide anitzeko organoan, eta ez duela bere gain hartzen prozedurari amaiera ematen dion Ebazpena hartzeko erantzukizuna, zuzendari nagusiari agindu baitzaio.

9.- Bestalde, 6 b) idatz-zatian aipatutako Dekretuaren II. kapitulua baliabideen katalogoa arautzeari buruzkoa da. Katalogo horretan bilduta dago (...)ren Zerbitzuen Euskal Sareak esleitu ditzakeen mota guztietako ekintzen zerrenda osoa.

(...) Katalogoan (...)ren zerbitzuan jartzen diren baliabideak sartu nahi dituzten erakunde laguntzaileek aurretiaz erakunde horren baimena izan beharko dute. Baimen hori ematea Dekretu horren 17. artikuluan eta ondorengoetan araututa dago. 20. artikuluan xedatzen denaren arabera, alde aurreko baimen-eskaerak «batzorde ebaluatzaile tekniko batek aztertzen ditu. Gutxienez, (...) arloko plantilla teknikoko lau pertsonak osatzen dute, (...)ren zuzendariak xede horretarako izendatuta. Kideen artean, presidentea izendatuko du, eta hark egingo du ebazpen-proposamena». Batzorde honek eginiko proposamena oinarri hartuta, (...)ren zuzendariak behin betiko ebazpena ematen du, eta horren bidez, (...)en baliabideen Katalogoaren esparruan ekintzak eskaintzeko alde aurretiko baimena eman edo ukatzen da.

10.- Kasu honetan ere, kontsultaren egileak egiaztatu du eskaerak ebaluatzeko arduraren izan duen batzordean langile teknikoak egon direla, eta horiek (...)ren zuzendariaren gidaritzapean gauzatu dutela lana. Zuzendariak eman du prozedurari amaiera ematen dion ebazpena. Horri erantsi dio urte honetan gauzatu diren ekintza guztien hasiera eta exekuzioa «(...) arloko arduradunak eta hark izendutako talde teknikoak onetsi» dituela. Talde horrek jasotzen ditu aktak, eta (...)ren zuzendari gisa ez zuen bakar batean ere parte hartu. Amaitzeko adierazi du, «ekintza abiarazteko eta (...)ri diru-laguntza onesteko proposamen guztiak zuzendari nagusiari igorri zaizkio eta igortzen zaizkio onesteko, sinatzeko eta erakundeari jakinarazteko».

11.- 2015eko irailaren 10ean, interesdunak telematikoki igorri zuen Euskadin 2011 eta 2014 urteen artean (...)ren laguntza finantzarioarekin egin diren (...)ren programak garatzearekin loturiko dokumentazio osagarria. Hiru erantzun dira, (...)ren sailburuak emanak, Eusko Legebiltzarreko beste hainbat kidek eginiko galderei, (...)k (...)rekin duen loturari buruzkoak eta 2012ko eta 2013ko deialdietan diru-laguntza gisa bolumen ekonomiko handiena jaso duten hamar erakundeei emandako ikastaro kopuruei, orduei eta zenbatekoei buruzkoak. Diru-laguntza horien artean, 2011 eta 2014. urteen artean, (...) sozietatek (...)ren diru-laguntza jaso zuen, zehazki, (...) €-koa. Hala, 2011n (...) €-ko laguntzak jaso zituen, eta «2012ko eta 2013ko deialdietan emandako bolumen ekonomiko handieneko hamar erakundeak, 395 eta 397 Dekretuen arabera» taulan, (...) sozietatea bigarrena izan zen 2012an, (...) €-ko laguntzekin, eta lehenengoa 2013an, guztira (...) €-ko laguntzekin.

12.- Aurreko puntuetan jasotako datuak izanik, kontsultaren egileak baieztatu du EPBri jakinarazi dizkiola «Etika eta Jokabide Kodearen printzipio guztiak betetzeko martxan jarritako neurriak», bereziki «inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun eta interesik ez subjektiboaren printzipioak». Era berean, adierazi du EPB honek «nire erantzukizun publikoaren jarduketa etiko zuzenari eta hobetzeko eman daitezkeen gomendio»ei buruz duen iritziaren berri izan nahi duela.

Hori horrela, hauxe da EPB honek, 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen erabakia:

## **ERABAKIA**

### **I. AURREKARIAK**

1.- Eusko Jaurlaritzak hainbat dokumentu eta akordiotan adierazi izan du etika publikoarekiko kezka, eta, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten kideen eta kargu politikoen jarduketa etikoaren jokabide etikoarekiko kezka. Horien artean, nabarmentzekoa da 2013ko maiatzaren 28an onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikoen eta behin-behineko langileen Etika eta Jokabide Kodea (EJK) onetsi izana. Dokumentu hori sortu da, hain zuzen ere, «politikaren zentzu etikoa berreskuratzeko eta herritarrek erakundeengan konfiantza berrezartzeko» nahiaren ondorioz.

2.- Ondoren, Eusko Legebiltzarrak Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea onetsi du. Lege horrek EPBren esparru subjektiboa zabaltzen du, EAEko sektore publikoko kargu publikodun, behin-behineko langile eta zuzendaritzako langile guztiengan eragiteko asmoz.

II. kapituluan, «kargu publikodunen jokabideari» buruzko hainbat printzipio orokor jasotzen dira. Osotasunaren eta gardentasunaren (5. art.) inguruan egituratuta daude, zehazki, hiru arlotan: jokabide indibiduala (6. art.), erakundearen kalitatea (7. art.) eta herritarrekiko harremana (8. art.).

3.- Printzipio horien nahiz EJKn jasotako balio, printzipio eta jokabideen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, azken horretan aurreikusi zen, 16.3 paragrafoan, EPB bat eratzea. Bestek beste, «kargu publikoek eta parekatuek eginiko kontsultak ebatzeko eta beste edozein instantzia egiteko» gaitu zen, EJK aplikatzearekin lotuta.

## II. ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEAK AZTERTU BEHARREKOA

1.- Interesdunak, hau da, (...)ren zuzendariak, EPB horrek legealdiaren hasieratik lehia askeko prozeduretan –gaur egun lanean ari deneko erakundeak urtero izapidetzen ditu prozedura horiek– pertsonalki eta zuzenean parte ez hartzeko hartu dituen inhibizio-neurrien inguruan duen irizpena eskatu du. Lehiatzen diren erakundeen artean, besteak beste, (...) sozietatea dago –EAEko Administrazio Orokorrean sartu arte bertako gerentea izan zen, eta kontsultaren egileak partaidetza bat du bertako kapitalean–.

2.- Interesdunak duen kargu publikoa gorabehera, izaera juridiko propioa duen erakunde publiko bateko plantillaren baitan dagoenez, komeni da jakitea lehenik eta behin EJKren hartzaileen artean ote dagoen; izan ere, EPB honek kontsulta hori aintzat hartuko luke baldin eta erantzuna baiezkoa balitz.

3.- (...)ren Estatutuak onesten dituen maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren arabera, eskumeneko sailari atxikitako administrazio-erakunde autonomoa da hau (1. art.). Gobernu-organoak honako hauek ditu: Presidentetza, Administrazio Kontseilua eta Zuzendaritza Orokorra (4. art.), eta horren mende daude organikoki eta funtzionalki (...) Zuzendaritza, (...)ren Zuzendaritza eta (...)ren Zuzendaritza.

Hiru zuzendaritza horien titulartasuna duten pertsonak, goi-kargudunetarako ezarrita dagoen bezala, Eusko Jaurlaritzaren Dekretuaren bidez izendatu dira –interesduna, zehazki, (...) Dekretuaren bidez izendatu zuten–. EJKrako banako atxikimendua formalizatu dute –kontsultaren egileak 2013ko ekainaren 10ean egin zuen– eta Kargudun Publikoen Jokabide Kodearen eta Interes Gatazken (KPJKIG) legearen 4. artikuluan aurreikusitako goi-kargudunen katalogoaren baitan daude (martxoaren 31ko 39/2015 Dekretuaren bidez eguneratu da). Hortaz, argi geratu da kontsultaren egileak EJK betetzen duela.

4.- Kontsultaren egileak idazkian sartutako gertaeren zerrendatik nabarmendu beharreko lehenengo gauza da orain betetzen duen kargu publikoan sartu «baino lehen» –jakintzat ematen dugu kargu horretan sartu aurreko unean–, «(...)ren gerentea» zela; izan ere, «gaur egun [...] eszedentzian dago, baina bazkide izaten jarraitzen du».

5.- 6/2013 Akordioan, kargu publikodun baten kasua ezagutu genuen: «EPBren aurretiazko irizpena jaso gabe, uko ez egitea erabaki eta kontratu baten esleipena sinatu zuen eta zegokion eskaera egin zion zuzendari izendatu aurretik –duela zortzi hilabete soilik– lanean egondako enpresa-taldeko sozietate bati. Kasu hartan, ikusi genuen kexa etikoa egiteko arrazoia bazegoela; izan ere, ustezko gatazka-interesak gorabehera, kargu publiko horrek ez zituen aktibatu –EJKren 11.3 paragrafoaren 5. idatz-zatiak eskatzen duen bezala– kautelazko edo prebentziozko mekanismoak, erabat profilaktikoak, eta horien bidez «interes-gatazkan jausteko susmo txikiena ere» baztertuko zatekeen.

Baina, beste behin ere, gogora ekarri behar da herritarrek berriro erakundeetan konfiantza izan dezaten, hori baita EJKren xede nagusia, ez dela nahikoa jarduera likitsak erauzte, interes subjektiboak eragindakoak, osotasuna, objektibotasuna eta inpartzialtasuna alde batera utzita egiten direnak. Horrez gain, administrazio-jarduera akats horietatik at garatzen denaren itxura babestu behar da; eta horretarako, kautelazko eta prebentziozko mekanismoak ezarri behar dira, EJK-k aurreikusten duen moduan, eta interesdunak, berriz, ez zuen horren berri izan bere jardueraren objektibotasun, inpartzialtasun eta interesik ez subjektiboari buruzko oinarridun arrazoiak zeuden balizko batean arrazoizko zalantzak egon zitezkeela pentsatzeko. Eta honako hau gaineratu genuen: «susmo hutsa ez bada ere nahikoa arrazoi inputazio bat egiteko edo errugabetasun-presuntzioa hausteko esparru juridiko penalean edo zehapen-esparruan», EJKn berriaz adierazten du «ebazpen edo erabaki batek hura hartu duenari onura ekar dakiokenaren edo hura hartzeko interes bereziak izan dituenaren edozer susmo edo zalantza sortzea saihesteko (5.2.4 paragrafoa) eta edozer praktikak edo jardunek faboritismo-susmoak eragin baditzake (6. paragrafoa), Eusko Jaurlaritzako kargu publikodunek eta parekatuek jarrera profilaktikoak izan behar dituzte, eta interesdunak ez zuen halakorik izan».

6.- Kasu honetan, ordea, kontsultaren egileak hasieratik ezarri zituen –edo hala agertzen da, behintzat, EPB honetan jasotako informazioan– EJK-k kargu publikodunen jarduketan profilaxia bermatzeko ezartzen dituen kautelazko edo prebentziozko neurriak; izan ere, erabat bete ditu zuzendari-karguan sartu aurretik gerente izan zeneko kooperatiba elkarteari emandako diru-laguntzak esleitzeko legezko prozedurak: ez zuen parte hartu batzorde ebaluatzaileetan –eskaerak aztertzeko eta ebazpen-proposamenak emateko– eta ez zituen sinatu eskatutako laguntzak emateko edo ukatzeko behin betiko ebazpenak. Ez du inola ere prozeduretan parte hartu.

Parte hartu ez duen prozedura horiek karrerako funtzionarioek izapidetu izanagatik –erakundeko beste zuzendari baten presidentetzaren mende jardun dute horiek– eta prozedura horiei amaiera eman dieten ebazpenak zuzendari nagusiak eman izanagatik –maila goreneko kargua duen zuzendari nagusiak eman zituen– uste dugu *modus operandi*ak jarduketa partzialaren zalantza edo susmo oro desagerrarazteko berme nahikoak ematen dituela.

7.- Kargu publikodun batek administrazio publikoetatik datozen laguntzak edo diru-laguntzak jasotzen dituzten sozietate edo erakunde pribatuetan partaidetzaren bat izateko aukerari dagokionez, honako hau xedatzen da EJKren 15. paragrafoa 6. idatz-zatian: «Gobernu-ekintzaren aurkakoak izan daitezkeen xede eta jarduerak dituen edozein elkarte nahiz erakundetan parte hartzea Etikako Batzordeari jakinaraziko zaio berehala, eta dagokion gomendioa emango du». Zehatzago eta preskribatzaileago, honako hau ezartzen da KPJKIGren legearen 22.1 artikuluan: «Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoarekin edonolako

itun edo kontraturik daukaten enpresetan, edo enpresa horiekin azpikontratuak dauzkaten enpresetan, edo arlo publikoko edozein erakundetatik diru-laguntzak jasotzen dituztenetan, lege honen aplikazio-eremuan dauden kargu publikoak betetzen dituztenek ezin dute eduki, ez zuzenean ez zeharka, % 10 baino partaidetza handiagoa, ez beren kasa, ez ezkontidearekin batera –ezkontza-eraentza edozein delarik ere–, ez izatezko bikotearekin batera, ez eta menpeko seme-alabekin edo tutoretzapeko beste inorekin batera ere».

8.- Kontsultaren egileak idazkian baieztatzen du (...)n «bertako kapitalaren portzentaje bat duela». Ez du aipatzen bere kapital sozialean partaiderik baduen –ezkontidea, izatezko bikotea, ondorengoak, tutoretzan dauden pertsonak eta abar–. Beraz, jakintzat ematen dugu ez dagoela halakorik. Oinarri horri dagokionez, badirudi argi dagoela interesdunak (...)ren kapital sozialean duen partaidetza lege debekatzeko mugatik urrun dagoela.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunen bazkideen partaidetzak KPJKIGren legearen 21. artikuluan aurreikusitako ondasun eta eskubideen adierazpenean sartu behar dira. Baina adierazpena «isilpekoa» denez eta lege horren 26.3 artikuluekin loturiko eragileek besterik ez dutenez horietarako sarbidea –horien artean dago EPB hau–, jakintzat emango dugu kontsultaren egileak (...)n duen partaidetza zuzenari edo zeharkakoari buruz emandako informazioa zuzena eta osoa dela. Beraz, esan den bezala, ez dago KPJKIGren legearen 22.1 artikuluan ezarritako debekuen baitan.

9.- Aurreko idatz-zatietan ezarritakoaren arabera, printzipioz, ezerk ez dio galarazten interesdunari zuzendari-kargua betetzen jarraitzea, betiere (...)n –edo EAEko sektore publikoko diru-laguntzak jasotzen dituen beste edozeinetan–bazkide gisa duen partaidetzak legeko muga gainditzen ez badu eta legealdiaren hasieratik hartu dituen neurri profilaktikoei eusten badie, dagokion erantzukizun publikoa gauzatzean hartzen dituen administrazio-ebazpenen gainean partzialtasunez, faboritismoz eta objektibotasun faltaz jokatu duen susmo txikiena ere errotik kentzeko asmoz. Kargu horretan jarraitzeak, adierazitako baldintzei jarraikiz, ez du ez KPJKIGren legea ez EJK urratzen.

10.- Osotasun, inpartzialtasun, objektibotasun, zintzotasun, interesik ez subjektibo eta eredugarritasunari buruzko printzipioen eskakizunak modu berean bermatu beharko dira kontsultaren egileak gaur egun betetzen duen kargua utzi eta, hala erabakiz gero, (...)ren gerentearen kargua berriz hartzen duen unean –egun eszedentzian da–. Aurreko paragrafoan adierazitakoa gertatzen denean, kontsultaren egileak zorrotz beteko ditu une horretan Administrazio Publikoko goi kargudun batek kargu hori utzi eta bere lanpostuan berriz hasi arteko urrats horiek hori arautzen dituzten legeko jarraibideak.

11.- Begi-bistakoa da gerentea izan zeneko –orain eszedentzian dago– sozietateak parte hartzen duen diru-laguntzen prozeduretan erabat aldentuta egon izanak –bertako kapitalean oraindik ere partaidetza du– ez diola eragozten kontsultaren egileari bere titulartasuneko zuzendaritzaren eta erakunde pribatuen arteko lankidetzaren politikan pertsonalki parte hartzea. Are gehiago, arloko zuzendaria denez, laguntzeaz gain, politika horren diseinua zuzendu ere egin ahalko luke –eta hala beharko luke–. Inori ez zaio ezkutatu, (...)ren politika-ildo nagusi horiek ezartzeko eginkizun hori gauzatzean erabaki estrategikoak har daitezkeela, eta horiek zuzenean edo zeharka onurak edo pribilegioak ekar ditzakeela jatorrizko sozietatearentzat – oraindik ere partaidetza bat du bertan–. Hori dela-eta, bere jarduketaren inguruko edozein susmo baztertzeko, honako hau gomendatzen da: arreta berezia jar dezala EJK-ko 6. paragrafoko 4. idatz-zatian jasotako agindua bete dadin. Honela dio idatz-zati horrek: goi-kargudun eta antzeko guztien «erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere. Horretarako, aholkularitza teknikoa baliatuko da, bitarteko propioen eta, hala egokitzuz gero, kanpokoen bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko».

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako erabakia:

#### **ERABAKIA:**

**Lehenengoa.**- Printzipioz, ezerk ez dio eragozten interesdunari zuzendari-kargua betetzen jarraitzea, betiere (...)n –edo EAEko sektore publikoko diru-laguntzak jasotzen dituen beste edozeinetan– bazkide gisa duen partaidetzak legezko muga gainditzen ez badu eta legealdiaren hasieratik hartu dituen neurri profilaktikoei eusten badie, dagokion erantzukizun publikoa gauzatzean hartzen dituen administrazio-ebazpenen gainean partzialtasunez, faboritismoz eta objektibotasun faltaz jokatu duen susmo txikiena ere errotik kentzeko asmoz. Kargu horretan jarraitzeak, adierazitako baldintzei jarraikiz, ez du ez KPJKIGren legea ez EJK urratzen.

**Bigarrena.**- Gerentea izan zeneko –orain eszedentzian dago– sozietateak parte hartzen duen diru-laguntzen prozeduretan erabat aldentuta egon denez –bertako kapitalean oraindik ere partaidetza du–, ez dio eragozten kontsultaren egileari bere titulartasuneko zuzendaritzaren eta (...)ren esparruko erakunde pribatuen arteko lankidetzaren politikan pertsonalki parte hartzea. Hala, bere jarduketaren partzialtasunaren inguruan egon daitekeen edozein susmo baztertzeko, honako hau gomendatzen diogu kontsultaren egileari: arreta berezia jar dezala

EJK-ko 6. paragrafoko 4. idatz-zatian jasotako agindua bete dadin. Honela dio idatz-zati horrek: goi-kargudun eta antzeko guztien «erabaki, ebazpen eta ekintza guztiak informazio fidagarrian oinarrituta egongo dira (txostenak, azterlanak, proiektuak, irizpenak), bai eta ebatzi beharreko gaiari lotuta eskura dauden datuen azterketa objektiboetan ere. Horretarako, aholkularitza teknikoa baliatuko da, bitarteko propioen eta, hala egokituz gero, kanpoko bidez, arazoak modu objektiboan hartzen eta behar bezala konpontzen laguntzeko».



**Josu Iñaki Erkoreka Gervasio**  
**Etika Publikorako Batzordeko burua**

**Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriak 5**